



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Ikerketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades e
Investigación
Dirección de Investigación

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 30koa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2020-2021 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2020ko uztailaren 21eko aginduaren bidez deitutako dirulaguntza berriak ebazten dituen.

Agindu horren 31. artikulua arabera, laguntza berriak, Ikerketa Espezifikoan, ematea edo ukatzea Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpen bakarraren bidez gauzatuko da, hautapen-batzordearen ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta Berariazko aholku batzordeen ebaluazioa eta hautapen-batzordeak helarazitako proposamena

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzak eta dagozkien ezarpen zentroa zein kontratuak eta bidaiak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea 2020-2021 ikasturterako.

Kontratu horiek 12 hilabetetarako izango dira.

Kontutan izanik eskatzaile bakarra izan dela eta berori onuraduna gertatu dela ez dago, beraz, ez ordezkorik, ez hautagai ez onarturik ez eta kanpoan utzitako hautagairik ere.

Bigarrena.- Dirulaguntza horien zenbateakoa, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak 2020ko uztailaren 21eko aginduak xedatutakoaren arabera erabakitzea.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea; beraz, bere aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute interesadunek, Hezkuntza sailburuari zuzenduta. Horretarako epea hilabetekoa da, ebazpen hau www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 30a.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN